



ABALTZISKETA

“TOLOSALDEA SAHARAREKIN”

“Tolosaldea Sahararekin” elkarteko kideek Saharar herriarekiko elkartasuna lortu eta errefuxiatu kanpamentuetara ahal den laguntza gehiena eramateko helburua dute. Horretarako bide bat janari bilketa egitearena da.

Janari bilketa hau urtarrilean gauzatzen da. Abaltzisketan janari bilketa hau honela egingo da:

- **BILKETA EGITEKO EPEA:** 2018ko urtarrilaren 15etik
2018ko otsailaren 2ra.
- **BILGUNEA:** Abaltzisketako Udaletxean, bulego orduetan.
- **BILDU BEHARREKO JANARI ETA MATERIALA:**
Lekaleak, hegaluzea oliotan, sardinak oliotan, azukrea, arroza, pasta, olioak, konpresak eta haur eta helduentzako pixaohialak.

Bestalde, elkarteak esku artean duen proiektua, Saharar lurralde askatuetan Midyic izeneko herrian eskola bat eraikitzea eta mantentzea, aurrera doa eta bertan ikasten dabilen 120 ikasleentzat eskola materiala jaso nahi da (koadernoak, arkatzak, ezeztekoak, txorroskiloak,...).

Besterik gabe, aurrez zuen laguntza eskertuaz, agurtzen zaituztegu.

Abaltzisketan, 2018ko urtarrilaren 15ean.

Alkateak